



## UDALBILTZA

---

### HAUTAKETA-PROZESUA

#### **UDALBILTZA PARTZUERGOKO TEKNIKARI LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAKETA PROZEDURA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileak, 2021eko azaroaren 10eko bilkuran, teknikarien lan poltsa osatzeko deialdia zabaltzea eta dagozkion oinarriak onartzea erabaki zuen.

Onartutako hautaketa-prozedura arautzen duten Oinarriak ondorengoak dira.

#### **Lehena. Deialdiaren helburua.**

Oinarri hauen xedea Udalbiltza Partzuergoan teknikari lanpostua txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez betetzea eta etorkizuneko behin behineko kontratazioak egiteko lan poltsa sortzea.

Horretaz gain, oinarri hauekin batera lehenengo eranskinean doan eskaera orrian aukeratu beharreko lehentasunezko lurralde juridiko administratibo bakoitzeko azpizerranda osatuko da, beharren arabera hiru azpizerrendetako bat lehenetsiko delarik.

2022an jardun osoan aritzeko lanpostu bat beteko da gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egitea lehenetsi duten pertsonak betetzeko.



Lanpostuak hurrengo ezaugarriak izanen ditu:

- Lanpostua: Teknikaria.
- Kontratu mota: Iraupen jakinekoa, bitartekoa.
- Iraupena: Lanpostua behin betiko betetzeko prozedura egin arte.
- Lanaldia: %100
- Hizkuntza-eskakizuna: Euskarazko 3. Profila nahitaezkoa.
- Soldata: urteko 31,945,90 euroren gainean lan egiten den jardun eta denboraren arabera izango du. ( B maila )

### **Bigarrena. Parte hartzeko baldintzak.**

1. Hautaketa probetan parte hartu ahal izango dute eskaera orriak aurkezteko epearen azken egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten izangaiek:

— Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

— 16 urte beteak edukitzea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.

— Lanpostuko zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea (baldintza hori dagokionean egiaztatuko da mediku azterketaren bidez).

— Diziplina espediente batez edozein administrazio publikoren edo organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzutik baztertuta ez egotea edo kaleratua ez izatea; eta, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaitasuna edo gaitasuna nazionalen Toki Administrazioaren funtzionarioei gordetako eskalan sartzeko, desgaitasuna berezia ez izatea.



Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

— Goi mailako heziketa, diplomatura edo maila bereko bestelako titulua izatea., edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, beren homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Horrelakorik ez dute beharko, araututako lanbideen eremuan, Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen arabera aitortutako lanbide kalifikazioa dutenek.

— Euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea.

Bete nahi den lanpostua betetzeko 3. hizkuntza-eskakizuna izatea ezinbestekoa da (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 98. artikulua).

2. Eskaera orriak aurkezteko epearen bukaeran, oinarri honetan aipatutako baldintza guztiak bete beharko dira; eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lanpostuaz jabetu arte, bitarteko funtzionario izendatu ondoren.

### **Hirugarrena: Eginkizunak.**

Hautatuko pertsonak teknikari lanpostua beteko du. Bere mailarako egokiak diren beste batzuk baztertu gabe, hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

a) Udalbiltza Partzuergoko proiektuak eta lan ildoak hautetsi eta eragileekin batera kalitatez eta eraginkortasunez gauza daitezen behar bezalako koordinazioa egitea.

b) Bere gidaritzapeko proiektuen finantzaketa behar den arduraz egikaritzea.

c) Bere eginkizunak arretaz bete ahal izateko beharrezko batzorde eta prozesuak antolatu eta bideratzea, horretarako beharrezkoak diren saio eta bilerak planifikatuz eta aktak jasoz.



d) Bere ardurapekoak ez diren Udalbiltza Partzuergoaren proiektuetan edota lan ildoetan aktiboki parte hartzea.

e) Lurralde juridiko-administratibo jakin baten (Nafarroako Foru Erkidegoa, Euskal Autonomia Elkarte, Euskal Hirigune Elkargoa) erreferente teknikoa izatea.

f) Bere ardurapekoak diren lan ildoetan erreferente teknikoa izatea.

g) Bere ardurapeko lurralde juridiko-administratiboko udal eta hautetsiekin harreman iraunkorrak izatea.

h) Bere ardurapeko lan ildoetako eragileekin harreman iraunkorrak izatea.

i) Bere ardurapeko lurralde juridiko-administratiboko Udalek ordaindu beharreko kuotei jarraipena egitea, lankidetzeta-hitzarmenak prestatzea, proposamenak lantzea, diru laguntza eskaerak egitea, eta baliabideak lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen mota honetako beharrezko ekintzak egitea.

j) Udalbiltza Partzuergoak antolatutako ekimen orokorrak antolatzen laguntzea eta bertan parte hartzea.

k) Udalbiltzako Batzorde Eragileak eta zuzendariak bere kategoriaren arabera agindutako beste lan zehatzei erantzutea.

### **Laugarrena. Eskaera orriak.**

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera orri normalizatuak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Oinarri hauen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera izan behar da; behar bezala bete eta sinatuta aurkeztu behar da; eta bertan eskatzaileak adierazi behar du bigarren oinarrian jasotako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Aipatu eredia eskuragarri jarriko da [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean.



### b) Aurkezteko tokia edo bidea:

— Udalbiltza Partzuergoaren aurrez aurreko erregistroan: Doneztebe plaza, 1. 20180 (Oiartzun).

— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroetan.

— Estatuko Administrazioaren, beste edozein autonomia erkidegoren, diputazioen, kabildeen eta uharteko kontseiluen erregistroetan; eta, halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 121. artikuluan aipatzen dituen udalerrietako udal erregistroetan.

— Korreoseko bulegoetan: gutun-azal ireki batean eraman behar da eskabidea, Korreoseko enpleguak data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera udaleko erregistroan.

— Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

Udalbiltza Partzuergoko erregistroa ez den beste erregistro batean dokumentazioa aurkezten duten hautagaiek, emailez komunikatu beharko dute egoera hau dokumentazioa aurkezteko epearen barruan hurrengo helbide elektronikoan: [udalbiltza@udalbiltza.eus](mailto:udalbiltza@udalbiltza.eus).

### c) Aurkezteko epea:

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 egun baliodunen barruan.



### Laugarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Eskera orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:
  - NANaren fotokopia.
  - Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
  - 3. Hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatzeko agiriaren fotokopia.
2. Lehiaketaldian aurkeztu beharreko dokumentazioa (oposizioaldia gainditu dutenek bakarrik): hamargarren oinarrian aurreikusitakoa.
3. Hautaketa prozesua amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa: hamabigarren oinarrian aurreikusitakoa.

### Bosgarrena. Izangaiak onartzea.

1. Eskera orriak aurkezteko epea amaituta, Lehendakariaren ebazpenaren bidez onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko da Oiarzungo udaleko iragarki-taulan eta Udalbiltza Partzuergoaren webgunean ([www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus)).

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, izangaiak erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango dute. Erreklamaziorik edo zuzenketarik ez balego, behin-behineko zerrenda hori, besterik gabe, behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik edo zuzenketarik balego, onetsiak ala ezetsiak izango dira behin betiko zerrenda onartzeko hartu beharko den beste ebazpen batean. Aipatu ebazpena lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

2. Halaber, epaimahaiaren osaketa eta lehenengo ariketaren eguna, lekua eta ordua onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpenean zehaztuko dira.



**Seigarrena. Hautaketa prozesuaren berri ematea.**

Prozeduraren hurrengo iragarkiak eta deiak Oiartzungo udalaren oholean jarritako agiri bidez egingo dira eta Udalbiltza Partzuergoaren web orrian argitaratuko dira. ([www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus)).

**Zazpigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.**

1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

— Udalbiltza Partzuergoko Lehendakaria.

Epaimahaikideak:

— Udalbiltza Partzuergoko Batzorde Eragileko 2 kide.

Idazkaria:

— Udalbiltza Partzuergoko langile bat.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezzen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.

Epaimahaiak aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira, hitzarekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.



2. Epaimahaikideek ez dute jarduterik izango, eta hala jakinaraziko diote Lehendakariari, eta gainera errekusatuak izan daitezke, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren bat gertatzen bada.

3. Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitarte ezarritako arauari jarraituz jardungo du. Edozein kasutan ere, epaimahaiburuaren aginduz idazkariak deialdia egin ondoren bilduko da epaimahaia, hautaketa probei ekin aurretik behar besteko aurrerapenarekin. Epaimahaia legez eratutzat jotzeko, bertan egon beharko dute epaimahaiburuak eta idazkariak, edo horien ordezkioak, eta gutxienez mahaikideen erdiak.

Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen botoen gehiengoa beharko da. Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitatezko botoak desegingo ditu.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeaz arduratuz.

Epaimahaiak erabateko independentziarekin, diskrezio teknikoarekin eta objektibotasunarekin jardungo du; eta bere proposamenak bete beharrekoak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat.

Era berean, oinarri hauek aplikatzerakoan gerta daitezkeen zalantza guztiak antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera argituko ditu; eta deialdia egoki garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren balizkoetan jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Epaimahaiak idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Halaber, parte hartu duten izangaien nortasuna ezagutu gabe zuzenduko ditu ariketak.

4. Jakinarazpenak egiteko eta gainerako gorabeheren berri emateko, epaimahai kalifikatzailearen helbidea honako hau izango da: Doneztebe plaza, 1. 20180 (Oiartzun). E-mail: [udalbiltza@udalbiltza.eus](mailto:udalbiltza@udalbiltza.eus).

**Zortzigarrena. Hautaketa prozesua.**





Hautaketa prozesuak 3 fase hauek izango ditu:

— Oposizioaldian, atal honen 3. zenbakian deskribatzen diren proba egingo da. Fase honen gehieneko puntuazioa 40 izango da eta gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak hautaketa prozeduratik kanpo geldituko dira.

— Lehiaketaldian, berriz, bederatzigarren oinarriari jarraikiz izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratuko dira. Fase honen gehieneko puntuazioa 35 izango da.

- Elkarrizketa fasea: Elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa izangai guztientzat eta ez-baztertzailea hautagaien egokitze maila baloratzeko bete behar den lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko. 25 puntu lortzen ahalko dira gehienez.

## 2. Oposizioaldia nola garatuko den:

Deialdi bakarra egingo da. Izangaiek, beren buruak identifikatze aldera, NAN eraman beharko dute ariketetara; edota epaimahaiaren iritziz izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri ofizial (pasaporte, gidatzeko baimena, etab.).

Epaimahaiak ezinbesteko kasutzat jotako arrazoiak gertatu direnean izan ezik, ezarritako egun eta orduan ariketak eta probak egitera azaldu ez diren izangaiek hautaketa prozesutik baztertu egingo dira, eta deialdi honetan izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu egingo dizkie desgaitasunen bat izateagatik nolabaiteko egokitzapena behar duten eta eskaera orrian hala adierazi duten pertsoneri, gainerako parte hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, betiere egokitzapen horrek probaren edukia aldatzen ez badu eta eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen ez badu.

Probak egiteko eguna, ordua eta lekua Oiartzungo udaleko iragarki taulan eta [www.udlbiltza.eus](http://www.udlbiltza.eus) webgunean argitaratuko dira.

Probak oinarri honetan aurreikusitako hurrenkeran egin beharrean beste



hurrenkera batean egitea erabaki dezake epaimahaiak; halaber, erabaki dezake egun berean proba bat baino gehiago egitea.

3. Oposizioaldiko ariketa:

— Proba teorikoa izango da. Izangai guztientzako derrigorrezkoa eta baztertzaila. Ariketa honen gehieneko puntuazioa 40 izango da; eta gainditzeko beharrezkoa izango da, gutxienez, 20 puntu lortzea.

III. eranskineko gai-zerrendan zehaztutako gaietarako aukeratzeko erantzun anitz dituen galdera-sorta bat erantzun beharko da.

4. Probaren ostean hiru egun balioduneko epea emango da emaitzen kontrako erreklamazioak jartzeko.

**Bederatzigarrena. Euskara.**

Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko dute izangaiek, Epaimahaiak ezartzen duen eran, eta Herri Ardurularitzaren Euskal Erakundeak azterketa hauetarako ezartzen dituen ildoetara jarraituz, hala xedatzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1. artikulua.

Ez dute proba hori egin beharko IVAPek emandako ziurtagiria edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren C-1 mailarekin homologatutako euskara ezagutza egiaztatzen duen titulu edo egiaztagiriren bat daukatenean, hain zuzen ere azaroaren 9ko, 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan zerrendatutakoren bat.

Ariketa honi Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango zaio.

Euskararen ezagutza maila egiaztatuko da kasuan-kasuko hizkuntza-eskakizuna (3. HE) izatea egiaztatzen duen agiri hauetakoren bat aurkeztuta: IVAPek emandako ziurtagiria; edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak -euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak- ezarritakoaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiriak edo agiriak.



## Hamargarrena. Lehiaketaldia.

Baloratuko diren merezimenduak:

10.1. Atal honetan, 35 puntu lortzen ahalko dira gehienez, eta ez da baztergarria izango. Epaimahaiak laugarren oinarriaren arabera alegaturiko eta frogaturiko merezimenduak baloratuko ditu, honako baremoari jarraikiz:

10.2. Lan esperientzia: Atal honetan 10 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

- a) Administrazio Publiko batean lanpostuarekin zerikusi zuzena duten funtzioak betetzen dituen lanpostuan jardun osoan lan egindako hilabete bakoitzeko, puntu 0,5; gehienez ere, 5 puntu.
- b) Eragile pribatuan lanpostuarekin zerikusi zuzena duten funtzioak betetzen dituen lanpostuan jardun osoan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,3 puntu gehienez ere, 5 puntu.

Bete beharreko postuarekin zerikusi zuzena duten funtzioak bete izana egiaztatu beharko da.

Hilabete osoa osatzen ez duten lan egunen araberako proportzioa zenbatuko da.

10.3. Titulazioak: Gehienez ere, 10 puntu.

- a) Lanpostuarekin zerikusi zuzena duen lizentziatura edo gradua izatea. 5 puntu.
- b) Formakuntza osagarria: lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko jardunaldiak, mintegiak eta masterrak gainditzea. Gehienera 5 puntu emango dira baremo hauen arabera:

- 20 orduetik 40 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: Puntu 1.

- 41 orduetik 60 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 2 puntu.



- 61 orduetik 80 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 3 puntu.

- 81 orduetik gorako ikastaro bakoitzarengatik: 4 puntu.

10.4. Hizkuntzak: Gehienez ere, 15 puntu.

- a) Ipar Euskal Herriko hautagaien zatik gaztelera C1 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaien zatik frantses titularen C1 edo baliokideagatik, 10 puntu.
- b) Ipar Euskal Herriko hautagaien zatik gaztelera B2 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaien zatik frantses titularen B2 edo baliokideagatik, 5 puntu.
- c) Ipar Euskal Herriko hautagaien zatik gaztelera B1 titulua edo Hego Euskal Herriko hautagaien zatik frantses titularen B1 edo baliokideagatik, 3 puntu.
- d) Ingeles B2 titulua edo baliokidea izateagatik, 2 puntu.

A, B eta C azpiatalak ez dira aldi berean puntuagarriak izango.

10.5. Merezimendu bakoitza behin bakarrik izango da puntuagarri.

10.6. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko epea: Oposizioaldiko ariketen emaitzak argitaratzearekin batera epaimahaiak epe bat zabalduko du, ariketa horiek gainditu dituzten izangaiek aurreko atalean aipatu merezimenduak alegatu eta egiaztatu ditzaten. Horretarako, oinarri hauen II. eranskinean jasotako eredu erabili behar da. Eredu hori [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean egongo da eskuragarri.

3. Merezimenduak baloratzea:

Lehiaketaldian gehienez ere 35 puntu lortu ahal izango dira.

Epaimahai kalifikatzaileak ez ditu inola ere baloratuko emandako epean behar bezala alegatzen eta egiaztatzen ez diren merezimenduak.



Deialdian parte hartzeko eskaera orriak aurkezteko epea amaitu aurretiko zirkunstantziei buruzko merezimenduak baloratuko ditu, ez besterik.

Merezimenduak baloratu ostean, hiru egun balioduneko epea emango da lortutako puntuazioaren kontrako erreklamazioak jartzeko.

### **Hamaikagarrena. Hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda.**

1. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuazioen guztizkoarekin osatuko da.

Berdinketa suertatuko balitz, modu honetan desegingo da hori:

Lehenik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarreko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua ezarritakoaren arabera eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Eusko Legebiltzarren 20.4.a) artikulua ezarritakoaren arabera, gaitasun bera badago, lehentasuna emango zaio dena delako lanpostu horretan % 40 baino ordezkaritza gutxiago duen sexu pertsonari, salbuespena izango da lanposturako beste hautagai puntuetan berdinduak neurri hori ez aplikatze a justifikatzen duten ezaugarriak dituenen -nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik-; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

— Bigarrenik, oposizio fasean puntuazio gehien lortu duen izangaiari.

— Hirugarren, Administrazio publikoaren zerbitzuetan denbora gehien egin duen hautagaiak.

2. Azken kalifikazioa zehaztu ostean, hautaketa prozesua gainditu dutenen artean puntuazio handiena lortu duen eta hamabigarren oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkeztu duen izangaia izendatzeko proposamen arrazoitua egingo die epaimahai kalifikatzaileak Lehendakariari; edo proposatuko dio hautaketa prozesua hutsik uzteko, baldin eta izangaietako inork ez badu lortu hautaketa prozesua gainditzat jotzeko ezarritako gutxienezko puntu kopurua. Proposamena loteslea izango da Lehendakariarentzat.



Hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda Oiartzungo udaleko iragarki taulan eta [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) udal webgunean argitaratuko da.

### Hamabigarrena. Dokumentuak aurkeztea.

1. Izendatu aurretik, hautatuak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du 5 egun naturaleko epean, hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda ezagutarazten denetik kontaktzen hasita:

- Deialdi honetan eskatutako titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.
  
- Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko agiriaren fotokopia konpultsatua.
  
- Erantzukizunpeko adierazpena: diziplina espediente batez edozein administrazio publikoren edo organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzutik baztertuta ez egotearena; eta, ebazpen judizial bidez, enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza berezia ez izatearena; eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasunei buruzkoak, aurreikusitako bateraezintasun egoeretakoren batean ez egotearena.
  
- Merezimenduak egiaztatzeko agirien kopia konpultsatua.
  
- Medikuen ziurtagiria: lanpostuaren zereginak eta eginkizunak behar bezala betetzen utziko ez lioken gaixotasunik, ezintasun fisikokorik edo psikikorik ez izatearena.

Konpultsa deialdia egin duen Administrazio Publikoko funtzionario eskudunak edo fede-emaila publiko eskudunak egin dezake. Horretarako, jatorrizko agiriak eta horien kopiak aurkeztu beharko dira.

2. Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagozkion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo zaio bitarteko funtzionario izendatu; eta baliogabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak. Gainera, eskaera orrian datu faltsuak jartzeagatik erantzukizuna eskatu ahal



izango zaio. Hori gertatzen bada edo proposatutakoak izendatua izateari uko egiten badio, epaimahaiak azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du.

### **Hamahirugarrena. Izendapen proposamena eta lanpostua hartzea.**

Hamabigarren oinarrian zerrendatutako agiriak epe barruan aurkeztuta, eta hautatutakoak bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Lehendakariaren ebazpenaren bidez egingo da izendapena.

### **Hamalauugarrena. Deialdiak eta jakinarazpenak.**

1. Probak egiteko deiak, baita epaimahai kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere, Oartzungo udaleko iragarki taulan eta [www.udalbiltza.eus](http://www.udalbiltza.eus) webgunean argitaratuz emango dira jakitera.

Halaber, modu berean argitaratuko dira honako hauek ere: oposizioaldiko ariketen emaitzak nahiz lehiaketaldiko merezimenduen balorazioa, azken kalifikazioa eta hautaketa prozesua gainditu dutenen zerrenda.

2. Interesdunek deialdiari buruzko informazio orokorra aipatu webgunean izango dute.

### **Hamabosgarrena. Lan poltsa eratzea.**

1. Hautatuak izan ez diren hautagaiekin lan poltsa osatuko da, bat lurralde administratibo bakoitzeko eta azkeneko puntuazioaren araberrako hurrenkeran (puntu gehien lortu duenetik hasita).

Lan poltsa hautaketa prozesua zortzigarren oinarriaren 3. zenbakian ezarritako moduan gainditu duten izangaiek osatuko dute.

2. Lan poltsa hori erabili ahal izango ditu Udalbiltza Partzuergoak berak lanpostu berean edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko, betiere lanpostu horiek Administrazio Orokorreko Teknikari



edota Administrazio Bereziko Goi mailako Teknikari azpieskalakoak badira.

### **Hamaseigarrena. Datu pertsonalak.**

Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalen tratamenduak datu pertsonalak babesteko araubidea bete behar du: hain zuzen, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) eta Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa.

Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak eta prozesutik sortutako lan poltsak kudeatzeko erabiliko dira bakar-bakarrik, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere DBEOak 6.1 artikulua a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko 14.3 oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da. Izangaiek emandako datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa prozesu hau eta hortik sortutako diren lan poltsak kudeatzea izango da. Udalbiltza Partzuergoa da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkatu eta garraiatzeko eskubideez baliatu nahi izanez gero, Udalbiltza Partzuergoak jo beharko dute izangaiek.

### **Hamazazpigarrena. Gorabeherak.**

Epaimahai kalifikatzaileak sor daitezkeen zalantzak argitu eta hautaketa prozesua egoki burutzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du, oinarriotan adierazi gabeko gaiei dagokienez.

Deialdi honen, bere oinarrien eta horien nahiz epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio egintzen kontra dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren





1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

Oiartzunen, 2021ko azaroaren 21ean

LEHENDAKARIAK

## ESKAERA ORRIA (I. eranskina)

### NORBERAREN DATUAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
NAN	Jaiotze data	Nazionalitatea
Helbide elektronikoa		Telefonoa
Helbidea	Udalerrria	Posta kodea

### DEIALDIAIREKIN ZERIKUSIA DUTEN DATUAK

Deialdian parte hartzeko eskatu eta legatutako titulu akademiko ofiziala	EUSKARA Egiaztatutako HE:
Desgaitasun agiria duten pertsonak  -Nahi izanez gero adieraz ezazu ondoren azterketak egiteko egokitzapenen bat edo denbora gehiago behar duzun:	

### LAN EGITEKO LEHENESTEN DEN LURRALDE ADMINISTRATIBOA

Nafarroako Foru Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa	Euskal Hirigune Elkargoa
---------------------------	----------------------------	--------------------------

### ESKAERA HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK

	NAren edo baliokidearen kopia
	3. HE egiaztatzeko agiriaren kopia
	Alegatu den titulu akademikoaren kopia
	Ariketa egiteko egokitzapenen bat edo denbora gehiago eskatuz gero: desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia konpultsatua

Orri honetan idatzi ditudan datuak egiazkoak direla, eta oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala eta eskatutakoan behar bezalala egiaztatuko ditudalala ADIERAZTEN DUT. Ondorioz, goian aipatu lanpostua betetzeko hautaketa prozesuaren deialdi publikoan parte hartzea ESKATZEN DUT.

Data eta lekua

Sinadura

## MEREZIMENDUAK AURKEZTEKO ORRIA (II. eranskina)

### NORBERAREN DATUAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
NAN	Jaiotze data	Nazionalitatea
Helbide elektronikoa		Telefonoa
Helbidea	Udalerrria	Posta kodea

### ALEGATUTAKO MEREZIMENDUAK

Lanpostua eta eragile pribatuaren izena	Harreman mota	Hasiera data	Amaiera data	Egiaztagiri zk.

Edozein Administrazio Publikotan antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan

Lanpostua eta Administrazio Publikoa	Harreman mota	Hasiera data	Amaiera data	Egiaztagiri zk.

**Titulazio akademiko ofizialak**

Titulazio akademiko ofiziala	Lortutako urtea	Unibertsitatea	Egiaztagiri zk.

**Formakuntza osagarria:**

Jardunadi, Mintegi edo master-aren izena	Iraupena	Unibertsitatea	Egiaztagiri zk.

**Hizkuntzak:**

Tituluaren izena	Lortutako urtea	Egiaztagiri zk.

Aurrealdean aipatu lanpostua betetzeko hautaketa prozesuan baloratu ditzan, orri honetan jasotako merezimenduak **AURKEZTEN DIZKIOT** epaimahai kalifikatzaileari eta **ADIERAZTEN DUT** idatzi ditudan datuak egiazkoak direla, honi erantsitako agirien bidez behar bezala egiaztatzen dudanez.

Data eta lekua

Sinadura

**Jabi Asurmendi Sainz, Udalbiltza Partzuergoko lehendakaria.**

Inprimaki honetako datu pertsonalak erasandakoaren onspenaz jasotzen dira, tratamendu automatizatuak izango dute eta Udalbiltza Partzuergoko Informazio Sisteman sartuko dira abenduaren 5eko 3/2018, Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) izapidetutakoa jarraituz. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Udalbiltza Partzuergoaren aurrean

### GAITEGIA ( III. Eranskina )

1. Gaia: Euskal Herriko lurraldeen ezaugarri nagusiak (bereziki, hautatutako lurralde juridiko-administratiboa).
2. Gaia: Euskal Herriko lurraldeen egoera eta behar nagusiak (bereziki, hautatutako lurralde juridiko-administratiboa).
3. Gaia: Udalbiltzaren sorrera eta ibilbide historikoa. Gaur egungo printzipioak eta lan ildoak.
4. Gaia: Udalbiltza Partzuergoa. Estatutuak, partzuergo kideak. Egitura nagusiak.
5. Gaia: Saretzea: beharra eta estrategiak. Udalak, eragileak eta herritarrak. Naziogintzako eragileak.
6. Gaia: Tokiko garapena Euskal Herrian: erakundeen politikak, gizarte eragileen inizatibak eta proiektuak.
7. Gaia: Burujabetza Euskal Herrian: erakundeen politikak, gizarte eragileen inizatibak eta proiektuak.
8. Gaia: Herrien arteko harremanak. Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko senidetzeak eta harremanak.
9. Udal esperientzia eraldatzaileak: Hartu eman
10. Gaia: Plangintza. Plan, programa eta proiektuen elaborazioa.
11. Gaia: Proiektuen jarraipena.
12. Gaia: Ebaluazioa: faseak, motak eta teknikak.
13. Gaia: Diru laguntzak: Euskal Herriko administrazio ezberdinetako eta Euskal Herriko mugaz gaindiko proiektuak garatzeko dauden deialdiak.
14. Gaia: Zeharkako politikak: herritarren parte hartzearen sustapena.
15. Gaia: Zeharkako politikak: genero berdintasunaren sustapena.
16. Gaia: Euskararen, euskal kulturaren eta kulturartekotasunaren sustapena.



17. Gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Hirigune Elkargoko municipalismoa. Erakundeak. Helburuak.